

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
uztailak 23  
460. zenb.



## Mozart, Goikobaluren eskutik

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: SILVIA TAUSCHKE  
UREN IKUSPUNTUTIK: A. ARRIZABALAGA • KIROLAK: GIL, ESPAINIAKO TXAPELDUNA



# Ofiziale Elkarteen Gida

## Elektrizitatea

- Aranzabal Koop. E.  
Zerkaosteta, 15 ..... ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- Arrasate Elektrizitatea  
Gipuzkoa etorbidea, 37 ..... ☎ 943 79 65 93
- EYA  
Iturriotz, 21 ..... ☎ 943 79 03 84

## Eraikuntza enpresak

- Berecibar  
Santamaina, 34 ..... ☎ 943 79 09 63

## Errotulazioa

- Pando errotuloak  
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ..... ☎ 943 79 79 70

## Igeltsaritzza

- Izcue Irurzun  
Munar, 6 ..... ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltsoak - Apaintzea

- Pako eskaiolak S.L.  
Markulete, 14 ..... ☎ 943 77 08 21

## Iturgintza

- Aretxabaleta  
Durana, 16 behea (Aretxabaleta) ..... ☎ 943 79 17 53
- Egia iturgintza  
Gipuzkoa etorbidea, 39 behea ..... ☎ 943 77 01 85
- Txorrota  
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ..... ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Margoak

- Apain  
Matiena, 3 - 1 ..... ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- JOVI  
Ferrerias, 36 behea ..... ☎ 943 79 12 87
- Serafin margoak  
Ferrerias, 14 ..... ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

Gida honetan azaldu nahi baldin baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora.



# Egun bateko kronika baino zerbait gehiago

**B**atzuk oporretan daudelako; beste batzuk lanbideak bultzatuta; zenbaiten oporraldia hemen igarotako astea izango da; beste hainbat kredituen bila etorri da soilik; edo sasoi honetan urteroko lagunekin biltzera. Pertsona adina arrazoik bildu gaitu aurten ere dozenaka pertsona Udako Euskal Unibertsitateko jardunaldietan Iruñean. Baina badago arrazoirik denok biltzen gaituena: deskubritzeko grina batetik eta maite dugun hizkuntzaren sarean partaide aktibo sentitu nahi izatea.

Egun bateko kronika soila baino zerbait gehiago izan nahi lukete lerro xume hauek, ez baita hotz-hotzean bizi izandako eguna izan: aspaldiko lagunaren besarkada, eguneroko kideen konplizitatea bakarrik edo estraineko aldiz gatozenon despistea... eta guz-



Karmele Perez

**“Deskubritzeko grinak eta maite dugun hizkuntzak bildu gaituzte UEUra”**

tiaren gaintetik, jai giroa, sasoi honetan legezkoa baita lana jaiarekin nahastea.

Jai giro horren muinean ezusteko ospakizuna, UEUk Txillardegiri eskainitako omenaldia, alegia. Horraino ezustekorik nabarmenena protagonistarena berarena izan da. Baina pianoa jo dezala eskatu diotenean eta jotzen hasi denean, ezustea ikusleongana itzuli da. Izan ere, gutako askok ez bainuen Txillardegi hizkuntzalariaren, Txillardegi abertzalearen, Txillardegi irakaslearen alderdi hori ezagutzen. Eta musikaren inguruan isiltasuna egin da nagusi; eta musikaren inguruan halako xamurtasunak inguratu gaitu. Nik, behintzat, horrela bizi izan dut momentu hori; hiru ordu lehenago hitzaldia ematen aurrez aurre izan dudana hura beste begi batzuek ikusteko aukera izan dudalako agian.

Trikitixa soinuaz bukatuko da gaurko egu-

na. Bihar batzuek hizkuntza ekologiaz hitz egiten jarraituko dugu; beste batzuek nekazaritza biologikoaz, teknologia berri edo narratibaren norabideaz. Edozein gai dela ere, maitatzen ikasten ari garenik ezin uka; hizkuntza maitatzen, natura maitatzen, misterioa maitatzen... Beharbada guk ere jaso dugulako Pilar eta Daniel Winberg-en semeak jaso zuen oparia. Eta Galeanoren gandik jaso dudana bezala, kontatu nahi dut nik ere, konklusio gisa:

“Bizitzara iritsi eta bataiatu zutenean, sakratuaren berri eman zioten”.

Itsas kurkuilu bat eman zioten:

- Ura maitatzen ikas dezazun.

Preso zegoen txoriaren kaiola zabaldu zuten:

- Airea maitatzen ikas dezazun.

Lore bat eman zioten:

- Lurra maitatzen ikas dezazun.

Eta botila txiki bat ere eman zioten, itxita:

- Ez zabaldu inoiz, misterioa maitatzen ikas dezazun».

Opari ederra, inon ederrik bada. Jakingo ahal dugu jaso dugun sakratua maitatzen eta atzetik datozenei ere erakusten!

*“TU-Lankiden egin ditugun aldaketak helburu garbi bat dute: gure bazkideek gehiago irakurtzea aldizkaria”*

Javier Marcos

2

**liberatu eskatzen ditu  
EAJ-EA koalizioak**

EAk eta EAJk liberatu bana eskatu diote EHri datorren legealdirako. Horrela balitz, Arrasateko Udalak hiru liberatu izango lituzte, alkatea ere horrela dabilelako. Aurreko legealdian Paco Garcia (PSE-EE) eta Isaso Garai (EAJ) ere liberaturik egon ziren. Beren alderdiek udaletik jasotzen zuten dirutik kobratzen zuten.

ITURRI ONETIK

## Ino Galparsoro alkate?

Baliteke oporretatik bueltan Arrasatek alkate berria izatea: Ino Galparsoro, EHko zerrendan bigarren tokian zihona. Zer dela eta?

Oraindik EA, EAJ eta EH negoziatzen ari dira azken honek parte hartuko ote duen Gipuzkoako Foru Aldundian. EHk parte zuzena hartuko balu — hori nahi duela esan du behin eta berrito —, diputatu bat edo beste izango lituzke. Eta badirudi Xabier Zubizarreta izango lituztekeela horietako bat. Kasu horretan utzi egingo luke alkatez.

Arrasate Pressen garbi adierazi zuen ez lukeela alkatez utziko diputatu bihurtzeko. Orain urtebete pasatxo, ordea, ezin garbiago adierazi zuen ez zela alkatezarako aurkeztuko. Erantzuna, oporretatik bueltan.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantza Arriola. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurizane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90). **Disenitza:** Maddi Trubue-lo. **Astakeratzaileak:** Mónica Belasategi. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Marijo Deogracias.

Arrasateko Udaleren laguntzaz  
Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntzaz  
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sallaren laguntzaz



## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala, 23

• Gaugez eta egunez: Korkuera, Musakola

### Larunbata, 24

• Gaugez eta egunez: Irizar, Erguin

### Igandean, 25

• Gaugez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

### Astelehena, 26

• Gaugez eta egunez: Azkoaga, Iturriotz

### Asteartea, 27

• Gaugez eta egunez: Korkuera, Musakola

### Asteazkena, 28

• Gaugez eta egunez: Irizar, Erguin

### Osteguna, 29

• Gaugez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igualaritoria . . . . . 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Gurutze Gorria

Bergara . . . . . 943 76 55 76

### DYA

Antzuola . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Arrasate (Larraldia) . . . . . 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: . . . . . 943 03 05 14  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 45 51 16

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati . . . . . 943 78 04 11  
Bergara . . . . . 943 77 91 06  
Arrasate . . . . . 943 79 14 39  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 10 52  
Eskoriatza . . . . . 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia . . . . . 943 79 58 77

## SANTAMAINAKO ALKATEARI ETA UDALARI

Joan den asteburuan Santamainako jaiak ospatu ziren. Auzo alkatezari kale honetarako aurrekontua ez zaiola iristen ikusirik, Santa Teresa auzoko zenbait lagun lanean hasi ginen.

Kale horretako lau lagunak, orain aipatuko ez ditugunak, ostiralean 20 kilo txistorra prestatu genituen, 50 litro zurrapote eta era guztietako freskagarriak umeentzat. Dena doan! Arratsaldeko 20:00etan hasi eta 22:30ak arte, kalea girotzen ibili ginen, horixe baitzen gure helburua. Kaleko tabernari bien eta dendariaren laguntza eskergarria izan genuen.

Larunbatean umeentzako jolasak antolatu genituen. Denek, salbuespenik barik, jaso zituzten opariak. Ostiralean bezala, askaria antolatu genien.

Eta igandean motortxikien erakustaldira iritsi ginen. Beste urte batzuetako esperientzian oinarrituz, hainbat gidari ekartzea erabaki genuen. Honen gastuak ere Santa Teresa kaleko lagunak kontura joan ziren.

Goian aipatu dizuedan honekin hauxe adierazi nahi dizuet: gogoak izanez gero, gauza asko egin daiteke. Horregatik, interesgarria litza-teke hainbat esparru prestatzea umeak diberti daitezen bizikletak, kars delakoak, motor txikiak, irristailuak, etab. erabiliz.

Arrasate horrelako tokiak behar ditu. Kontuan izanda Arrasateko Motor Elkarteak antolatu dituen gauza guztiak arrakastatsuak izan direla, Arrasateko Udalak aintzat hartu beharko lituzke zale hauek guztiak.

*Luis Mari Garcia*

## ABUZTUAREN 24A

Orporrak bukatzeaz daukela? Eta zer! Non Urbarrin baino hobeto San Bartolome jaiak pasatzeko?

Arrasatear guztiak gaude gonbidaturik egitarau honetan parte hartzeko. Dentesetik daukagu: kultura, dantza, emozioa, jolasak, umorea... Denak ezin hobeak ondo pasatzeko.

Badakizue nora joan, bada, egun horretan

*Uribarriko  
Jai Batzordea*

## OPORRETARA GOAZ

Irakurle maitea, hauxe izan-  
go duzu *Arrasate Pressen*  
azken alea, abuztuko opo-  
rretara joan aurretik. Hurren-  
go alea irailaren 3an kale-  
ratuko dugu.

Arrasate Telebistak,  
berriz, datorren astean ere

lana egingo du. Beraz, uztai-  
laren 30 bitartean albisteak  
ikusitako izango dituzu  
Berriak saioan, arratsalde-  
ko 20:00etatik aurrera.

Telebista abuztuaren  
30ean hasiko da berriaz ere  
emititzen.

Ondo pasau!

*Sili Sili*

Martxa eta estilo  
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



# Oporrak osorik edo banatuta nahiago dituzu?

*Geroz eta jende gehiagok hartzen ditu oporrak zatitan banatuta.*



**Andoni Mendoza**  
(21 urte)  
Ikaslea

Hilabete osoa nahiago, batez ere abuztuan. Tokiei dagokienez, beti aldatzen dut.



**Jabi Ruiz**  
(21 urte)  
Ikaslea

Hilabete osoko oporrak nahiago ditut. Urtero aldatzen dugu tokia.



**Julian Zamalloa**  
(21 urte)  
Ikaslea

Hilabete osoa nahiago, bestela oporretatik lanera eta berriz oporrak... Tokiak aldatzea polita da.



**Nerea Abad**  
(19 urte)  
Ikaslea

Hilabete osoa. Hamabost egunean ez du astirik ematen. Gurasoen arabera izaten da opor lekua.



**Rebeka Torres**  
(20 urte)  
Ikaslea

Hilabete osoa nahiago. Urte osoan lan egin ostean hilabete deskantsuan. Tokiak aldatzea dut gustuko.



**Eugenio Urizarren**  
(40 urte)  
Langilea

Banatuta nahiago. Dena batera hartuz gero, urte osoa itxaron behar duzu. Beti joaten naiz leku berera.



**Maria Angeles Rodriguez**  
(47 urte)  
Langilea

Hilabete osoa nahiago dut eta abuztuan, gainera. Baina nik 15 egun baino ez ditut. Tokiz aldatzea atsegin dut.



**Arantza Eriz**  
(35 urte)  
Irakaslea

Urtean zehar banatuta nahiago dut, dena dela, bi hilabeteko oporrak ditut. Tokiz aldatzen dut urtero.

**M** Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETAK  
Tel.: 943 79 08 07

*Sagardotegia*

**ITURRIETA**

Aranga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARAMAIO

**HIES**  
**EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik Betara.  
Tel.: 943 79 26 99



## Arrasate

### LANAK

#### KONTZEZIÑON

Saneamendu lanak Zerka-ostetatik Garibaira bitartean.

#### AGERRE PLAZAN

Oraindik ez dira lanak amaitu.

#### A-20 ETA ZALDISPEN


Oinezkoen pasabidea egiten ari dira.

#### OBENERREKAN

Oinezkoen pasabidea hasiko dute.

#### OTALORAN

Pilotalekuko lanak.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena




**OSTIRALA 23**

Lainoak agertuko diren arren, ostarteak agertuko dira orduak aurrera joan ahala. Tenperatura igo egingo da pisika bat.



**LARUNBATA 24**


Eguna nahiko garbi izango dugu egun osoan zehar. Dena dela, tenperatura goitik ibiliko da. Haizeak ekialdetik joko du.



**IGANDEA 25**

Mendi aldetik lainoak etor daitezke. Osterantzean, nahiko oskarbi egongo da. Tenperatura, igotzen.

## Ilargia



**Ilbete**

Uztailaren 28an, asteazkenean, ilbetea izango dugu.

## Mezak

#### Parrokia

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

#### San Frantzisko

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

#### Uribari

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### San Andres

##### Ostiralean

18:30 (Otoitz ordua)

##### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)

19:00 (elebiduna)

##### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### Santa Teresa

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%88,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Egin egunkaria itxi zela eta, Arrasaten ere *Hitz Egin* plataforma eratu zen.
- Txernobiletik etorritako haurrak Arrasaten izan ziren.
- Ane Lopez de Bergara Europako gazte mailako hegats txapelketara abiatu zen.





## Tour Lehiaketa Mundiala

Uztailaren 26an,  
astelehenean,  
irabazlearen izena  
jakinaraziko dugu  
ATBn.

Zeu izan zaitezke  
sariduna, adi egon!!

Saria: Lizarralde Kirolak  
eskainitako mendiko bizikleta eder bat.

# Azkenean, heldu díra oporrak! Baína denontzako ote díra?



Oporrak denok merezi  
ditugulako, bana dezagun  
etxeko lana, guztiona da eta!

## Emakumeek ere oporretan!



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



23

ostirala

■ ZINEA

Solas, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

25

igandea

■ ZINEA

Matrix, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

26

astelehena

■ ZINEA

Matrix, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

27

asteartea

■ ZINEA

Matrix, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

24

larunbata

■ ZINEA

Matrix, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ GOIKOBALUREN KONTZERTUA

Bere 10. urteurrena ospatzeko, Goikobalu abesbatzak Wolfgang Amadeus Mozarten *Requiema* eskainiko du kontzertuan, lehenengo aldiz Arrasaten. Emanaldia iluntzeko 20:00etan izango da, Amaia antzokian. Sarrera 2.000 pta kostako da. Ventanas San Miguel, Hire liburudendan eta Plus Ultra eta Kajoi tabernetan eros daitezke.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Industria Dolor*, talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du gaztetxean, gaueko 22:30ean.

■ MAALAKO JAIK

• 12:00 Meza, errebalean hil diren guztien alde, San Frantzisko elizan.

• 13:00 Luntxa erretiratuentzat, Plus Ultra tabernan.

■ FERRERIASEKO JAIK

• 08:00 etxafferuak.

• 12:00 txistularien kalejira.

• 19:00 meza, kaleko hildakoen alde, parrokian.

• 17:00 haur jolasak, bonba japoniarrak, zaku lasterketa, txokolatada...

• 19:00 Ikurriñaren igoera, txistularien kalejira, herri txi-

kiteoa, 7-14 urte arteko gazteen lasterketa, joko eta lehia-

ketak

• 21:00 herri afaria

• 23:00 musika herriko talde batek girotua, zaku lasterketa eta helduentzako jolasak.

28

asteazkena

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Viracocha* eta *Whalala* talde frantziarrekin latin festa egingo da gaztetxean, 19:00etan.



Maalako jaiak igandean eta Ferreriasekoak astelehenean izango dira.



# 29 osteguna

## ■ ZINEA MONTERRONEN

*El Gran Lebowski*, filma eskainikoo da Monterronen, Aire Zabaleko zine zikloaren barruan, 22:30ean. Sarrera 450 pta kostako da.

■ **NAN-AK JASOTZEKO**  
72 eta 73 ataletako Nortasun Agiriak eginak daude dagoeneko. Ekainaren 16an egin zirenak, hain zuzen ere. Jasotzeko udaltzaingora jo.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**  
Iturbide egoitzako zaharrek argazki erakusketari jarri dute, euren gazte garaiko argazkiekin. Erakusketa osteguna arte egongo da zabalik.

■ **JOKIN ZAITEGI**  
XIII. itzulpen laburren sariketa jarri du abian AEDk. Edozeinek har dezake parte eta lehiaketa munduko edozein hizkuntzatatik itzultitako idazlanak aurkez daitezke. Lanak 15-30 orri bitartekoak izan beharko dira eta jatorrizko testuak 1996-

-1999 bitartean idatzitakoak. Lanak urriaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira AEDn. Irabazleak 200.000 pta irabaziko ditu. Bigarren sarituak, berriz, 100.000 pta.

■ **ARGAZKI LEHIAKETA**  
"Gazteak eta 2000 urtea" X argazki lehiaketa abiarazi du Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera. Lanak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da. Saria 75.000 eta 50.000 pta.koa izango dira. Berri gehiago Udaleko Gazte Zerbitzuan edo 943 77 00 65 zenbakian.

■ **KILOMETROAK 99**  
Kilometroak 99ko materiala dagoeneko salgai dago. Naroki liburundean eta Hiper Eroskin, hain zuzen ere.

**HARRIGARRIA!**

*Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon*



**TUNEZ**

Hotel Skanes Palace Internacional\*\*\*\*  
Pentsio erdia  
8 egun, 7 gau  
Irteera abuztuaren 30ean  
Prezioa pertsona bakoitzeko

**69.900**

1<sup>a</sup>  
Eskuratu hemen



**VIAJES EROSKI**  
BIDAIK

► Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN, 22:00AK ARTE EROSKI HIPERMERKATUETAKO BULECOETAN

## Uribarriko jaiak

Abuztuaren 21ean, larunbatean, auzoko bazkaria egingo dute, Gau Txori tabernan 13:00etan. Ondoren dantzaldia.

Abuztuaren 21ean, larunbatean, auzoko bazkaria egingo dute, Gau Txori tabernan 13:00etan. Ondoren dantzaldia.

Abuztuaren 24an, asteartean izango da egun handia:

- **10:30** Suzirien jaurtiketa.
- **11:30** Meza, auzoko zaindari den Bartolome deunaren ohoretan.
- **12:30** Buruhandiak eta jolasak
- **16:30** Mus Txapelketa.
- **21:30** Bertso saioa, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Jesus Mari Egidazu eta John Solozabalekin.
- **23:30** Dantzaldia, Maixa eta Ixiarrekin.
- **02:30** Suziri jaurtiketa

Abuztuaren 25ean, asteazkenean

- **10:30** Suziri jaurtiketa
- **11:30** Meza, auzoko hildakoen alde.



USTEAK USTE

*Auzipetu  
bortxatzailea*

**J**oan den larunbat goizaldean lau piztitzarrek —mutil edo gizon esatea gehiegi litzateke—, Portasolen bizi zen jaigiroa aprobetxatuz, adin txikiko neska bat bortxatu zuten Aretxabaletan.

Albistea entzute hutsak min ematen du. Gure artean oraindik ere badira animaliak —gazte nahiz heldu— borondatez lortzen ez dutena indarrez eskuratu nahi dutenak. Ez zaie axola biktima adin txikikoa izatea.

Beste batzuek ez bezala, neska ausartu egin da bortxakeria salatzeri, nahiz eta horrek trago txarrak ekarriko dizkion.

Herritarrok —epaile, politikari, kazetari, ertzain edo langabe— ozen esan behar dugu ez dugula horrelako izugarrikeriarik onartzen eta zalantzak dituenari argi adierazi horrelako jarrerak kriminalak direla eta gizarteak ez dituela babesten.

Ertzaintzak harrapatu egin behar ditu lehenbailehen bortxatzaileak eta eipaileen esku utzi, hauek merezi duten zigorra jar diezaieten.

Ordua da izurrite honekin lehenbailehen bukatzeko.

Joxe Aranzabal



Lezetxiki, aidanez

\* Albaro Arrizabalaga

zenburu egokia, Arrasaten baino munduko beste hainbat lekutan ezagunagoa den aztarnategi ospetsu batentzat. 1927an topatu eta 1956-68 bitartean J.M. Barandiaranek industuriako aztarnategiak Euskal Herriko lehen biztanleen berri eman du mundu guztian zehar... hemen izan ezik. 1996an, bere egoera zein larria zen ikusirik, landa laneko beste ekinaldi bat hastea erabaki genuen. Hantxe izan gaituzue, azken lau urteotako udetan, hegoaldeko profilaren indusketa lanak eginez.

Lezetxikin eginiko azken ekinaldietako helburua bikoitza izan da. Alde batetik, aztarnategiaren kontserbazioa bermatzea, izan ere oso egoera kaxkarrean baitzegoen. Barandiaranen azken lanak bukatutzat eman zirenetik euriak, bertako pinuak eta lotsabako batzuek erabat hondatuta zuten lekua. Hiru kalte hauen artean oker-okerrenak gizakiak eragindakoak izan dira, inolako etekinik lortu gabe pertsona batzuek

aztarnategiaren zati aberatsenean 24 bat metro kubiko alferrik txikitu dituztelako. Zorionez, lur publikoa izanda (udalak erosita) eta hesi bat inguratzen jarri denetik ez da bestelako kalterik ikusi inguruetan.

Bigarrenik, zenbait galdareri erantzutea: zein da agertutako besoko hezuraren benetako datazioa? Badago Lezetxikin Behe Paleolitoari dagokion ezarmendu arkeologikorik? Edo nola ematen da Lezetxikin azken Neanderthal gizakietatik lehen gizaki modernoenganako igaraldia? Gezurra ematen duen arren, tankera horretako galdarak nahiko zabaldua dau-

de mundu osoko prehistorialarien artean. Alegia, Lezetxiki izugarriko garrantzia duen lekua da, bai Iberiar Penintsulan, baita Europan ere.

Hau ez da arkeologo baten susmo hutsa. Hemengo aurkikuntza antropologikoen apartekotasuna tarteko, Iberiar Penintsulako Historiaurreko esku-liburu guztietan garrantzi handiko aztarnategi bezala aipatzen da.

Ez nuke amaitu nahi puntu garrantzizko bat aipatu gabe. Lezetxikiko aztarnategia ez da Albaro Arrizabalagaren edo Aranzadiren leku propioa. Ezta Gipuzkoako Aldundiarena edo Euskal Herriko beste erakunde batzuenak. Guztion kultura ondarea da, gure arbasoengandik eskuratu eta gure ondorengoei itzuli behar diegun ondasuna. Ondare honen kudeaketarako badago hierarkia bat erakunde eta iker-tzaileen artean, leku hauek ahalik eta ondoen gordetzeko. Hala ere, hauxe eskatuko nioke Arrasateko herriari: Lezetxiki guztiona dela (baina pixka bat gehiago Arrasateko jendearena) ulertu dezala, eta honen ondorioz, datozen urtetan tratamendurik egokiena eman diezaiola lekuari.

\*Antropologoa



Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar

MATERIALEN SALMENTA

Erakusketak eta bitlegia:  
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE



# Ferrerias kaleko jaiak



## MERKEKILO

Oihalak  
Kortinak

Ferrerias, 5  
Tel.: 943 79 15 00

gure  
partetik  
jai zoriontsuak

FERRERIAS KALEKO  
JAIK 99

UZTAILAK 26.  
ASTELEHENA

## •ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Ispiluak, Margoak

Ferrerias, 11 • Tel.: 943 77 10 95  
ARRASATE

Erdiko kale, 36. 943 79 19 37



Ferrerias, 14. 943 79 87 62

## CARMEN

Ile apaindegia  
Solariuma

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63



Atsedena hartzeko  
ordua iritsi da!

Neurriko armairuak

Ferrerias, 28 C  
20500 Arrasate  
Tel.: 943 79 76 92

## ALICIA

janaridenda  
(FORONDA)

Ferrerias, 3  
Tel.: 943 79 92 84




PAPER DENDA

J. URIARTE

GRUPO TAMAYO

Eskerrik asko eta ondo igaro Ferreriaseko jaiak

Ferrerias kalea, 32 • Tel.: 943 77 03 80 • 20500 ARRASATE



OBRAK ETA BARRUKO  
PROIEKTUAK

Fixer...  
Mobiliario  
y decoración

Ferrerias, 17  
Tel. eta faxa: 943 79 03 17  
ARRASATE

RAMÓN OTAMENDI  
HARATEGIA

Berezitasunak:

Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa

Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28



LASAI  
KOLTXOIDENDA

Ferrerias, 28 A  
Tel.: 943 77 08 11

- Koltxoiak
- Kanapeak
- Nordikoak
- Izarak
- Lumatxak
- Kortinak

# IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11 • ARRASATE



# GORKA

ILE APAINDEGIA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78



## astea bi hitzetan

### ■ Hurrengo arte

Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuen lehenengo txanda ostiralean bukatu zen. Jaialdi berezi batekin agurtu zuten elkar aurreneko txanda honetan aritu diren haurrek eta begiraleek.

Arratsaldeko 16:30etan, haur talde bakoitza kolore bateko elastikoarekin jantzita atera eta herriko plazan elkartu ziren. Bi mapa margotu zituzten haurrek, jai bereziari hasiera emateko; batean euskarak I mendetik XX mendera arte izan duen bilakaera irudikatu zuten. Bestean, berriz, XX gizalditik, XXI gizaldi artean euskarak izango duen garapena. Ondoren, bi mapak udal txeko balkoian jarri ziren.

### ■ Mondragoe Interneten

Ordenadoreen sare erraldoi honetan Mondragon izena sartuz gero, orduak eta orduak igaro genituzke zer dakarren irakurtzen. Altavista bilagailuak, kasu, 9.000 webgunere ditu nola edo hala izen hau dutenak. Horietariko askok kooperatibekin dute zerikusia, hauen historia, finantza industria eta banaketa taldeak, salmentak eta antzeko datuekin. Badago bestelakorik ere. Mondragon Hotelak, adibidez, bere webgunea du eta Mondragon Unibertsitateari buruzko informazioa ere azaltzen da. Kontuak kontu, askok uste baino hedatuago dago Mondragoen izena eta izana gure mugetatik kanpo.

### ■ Mondragones ala Arriaran II?

Udal pilotaleku berriaren izenak eztabaida piztu du zenbait herritarren artean. Izan ere, hasieran, "Mondragones" izena eramango zuela zirudien, bera izan baitzen pilotari handia. Ostera, orain, pilotari beterano lagun talde batek herriko beste pilotari handi baten izena proposatu du udaletxean: "Arriaran II", hain zuzen ere. Honek, 29 urte egin zituen profesioletan eta 17 urterekin hasi zen lehen mailan.

Ikusten denez, beraz, proposamenik ez da falta udal pilotalekua bataiatzeko orduan.



Enpresa talde handiak indartsu izanez gero teknologiar dagokionez, indar horrek katalizadore eta bultzatzaile lana egiten du inguruan. Euskal Herrian BBVk, Mondragon Taldeak, Iberdrolak eta CAFek soilik bete dezakete egiteko hori. Herri erakundeen eta enpresa handi hauen arteko elkarlana oso garrantzitsua iruditzen zait, azken hauek gehiago inplika daitezten eta bultzagile bezala lan egin dezaten".

**P. MIGUEL ETXENIKE**

TU-Lankide  
1999ko ekaina



## HEGO AFRIKAKO eta TXUBASHIAKO DANTZA TALDEAK

Uztailak 27, asteartea,  
22:30ean

Sarrera: 1.000 pta (Gazte txartelarekin, 800)

NAZIOARTEKO FOLKLORE EMANALDIA

**ARRASATE**

MONTEIRON PARKEAN



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■




# Hil honen 29an lehen osoko bilkura egin liteke

Joan den ostiral arratsaldeko seietan bilera egin zuten udaletxean EA-EAJ koalizioak eta EHk. Eusko Alkartasunaren partetik Luis Etxebarriarteun lehendakaria eta Jose Mari Urizar "Ametzu" zinegotzia izan ziren. Eusko Alderdi Jeltzalearen izenean Agustin Ugarte lehendakaria eta Jose Mari Loiti zinegotzia. Eta Euskal Herritarrok ordezkatzuz, Xabier Zubizarreta alkatea, Ino Galparsoro zinegotzia eta Jabier Abalde Zutik-eko ordezkaria. Aurreko bileretan ez bezala, Juan Jose Ansoategi HBko lehendakaria ez en ostiralean izan.

Hainbat puntu jorratu zituzten nagusiki: alde batek, datozen lau urtetarako Gobernu Batzordeak aurrera eramango lukeen programa. Bestetik, batzordeen banaketa. Eta azkenik, liberatuen kontua.

EA-EAJ koalizioak batzorde hauek eskatu zituen aurreko bileran: hirigintza, zerbitzu teknikoak eta mantenimendua, auzoak eta zerbitzu sozialak.

## Negoiazio mahaia



Xabier Zubizarreta  
HB



Juan Jose Ansoategi  
HB



Ino Galparsoro  
HB



Jabier Abalde  
Zutik



Agustin Ugarte  
EAJ-PNV



Jose Mari Loiti  
EAJ-PNV



Jose Mari Urizar  
EA



Luis Etxebarriarteun  
EA

Horrezaz gain, bi liberatu izatea eskatu zuen: bat EAJkoa eta bestea EAkoa. Orain ikusi egin behar EHk zer erantzuten duen, izan ere, orain arte HBk ez du begi onez ikusi udal liberatuen arazoa. Ikusi egin behar, beraz, onartzen den eta zer formula erabiltzen den.

### ASTELEHENEAN, BILERA

Ezker Batuari dagokionez, berriz, Joseba Ugaldere aldeldikideak urduri jartzen hasi dira, bi aste baitira EHko zuzendaritzako inor ez zaiela hurbildu horretaz guztiaz hitz egiteko.

Baliteke EH eta EB aste

honeban biltzea. EH, EA eta EAJ, berriz, datorren astelehenean bilduko dira.

Badirudi denek ere nahi-ko luketela udalbatza berriaren lehen osoko bilkura hil honen 29an egin, oportetara irten aurretik. Dena dela, hori ere ikuskizun dago.

## Txanda aldaketa Lezetxikin

Astelehenean 18-20 urteko 24 gazte Arrasatera iritsi ziren hamabost egunez Lezetxikin lanean aritzeko prest.

Lezetxikiko auzolandegian lanean arituko den bigarren txanda taldea dugu hauxe.

Aurrekoek bezala, eguerdian udaletxeko eta Kutxako ordezkarien ongi etorria jaso zuten osoko bilkura aretoan. Hantxe izan ziren eurekin hamabost egunez egongo diren hiru begiraleak ere. Hauetako batek, Asier Izagirrek, azaldukoaren arabera, Leze-

txikin behealdean dagoen Kobaundi izeneko kobazuloa ezkutatzeko duten saskiak garbitu eta argitara atera nahi dute.

Jakina denez, Udalako Ingurugiro Eskola izango dute atsedean leku. Bestela, goizean hasi eta ilunkara arte Lezetxikin lanean ibiliko dira, otordurako atsedena tartean dela, noski.

Gogora dezagun, indusketak egiten ari diren arkeologoekin batera arituko direla lanean. Batzuk ingurua txukuntzen eta besteak aztarna arkeologikoen bila.

## Istripua San Prudentzian

Joan den asteazkenean istripu larria izan zen San Prudentzioko auzo aldean. Gertaeraren ondorioz, Javier Alonso Ezkurra, 20 urteko arrasatear gaztea, istripuz hil zen. Ezbeharra arratsaldeko 13:30ak inguruan gertatu zen Oñatira bidean dagoen San Prudentzio auzoan, errepide ondoan.

Ertzaintzak jakitera eman zuenez, motorrarekin zihonan gaztea istripua izan zuenean, Derby Senda motako motorrarekin, hain zuzen ere. Lekukoaren arabera, baserribide batean

zihonala, bidea alderik alde zeharkatzen zuen soka edo kate bat jo eta motorretik erori egin zen.

Ertzaintzak adierazita-koaren arabera, anbulantzia bat joan zen istripua izan zen lekura. Iritsi zenerako ordea, gaztea hilda zegoen jadanik.

Ondoren, gorpua Donostiako Polloe Institutu Anatomiko Forensera eraman zuten, epailearen aginduz. Istripuaren ondoren, Ertzaintzak ikerketa ireki zuen gertatutakoa argitzeko asmoz.

Goian bego.



## Jaiotzak

- Danel Mangana Alonso. Ekainaren 28an.
- Hodei Letona Retolaza. Uztailaren 4an.
- Ane Sajeras Cuesta. Uztailaren 6an.
- Ane Langarika Garzia. Uztailaren 3an.
- Leire Coronado Hidalgo. Uztailaren 8an.
- Unai Sierra Calvo. Uztailaren 8an.
- Endika Gomez Pedraza. Uztailaren 9an.
- Asier Dacosta Lazkano. Uztailaren 16an.
- Iker Uribesalgo Martinez. Uztailaren 16an.
- Gorka Presa Goñi. Uztailaren 16an.

## Ezkontzak

- Pedro Luis Oteiza eta Maria Rosario San Jose. Zibilez. Uztailaren 10ean.
- Josu Arriola Etxebe eta Agurtzane Muguruza Gonzalez. Zibilez. Uztailaren 17an.
- Iñaki Azurmendi Acebes eta Ana Elena Kernstok Odriozola. Zibilez. Uztailaren 17an.
- Eduardo Arroyo Vigo eta Visitation Rivero Gonzalez. Elizaz. Uztailaren 17an.

## Hildakoak

- Antonio Uranga Olabe. 84 urte. Uztailaren 7an.
- Amelia Maria Vazquez Guitian. 89 urte. Uztailaren 7an.
- Tomas Alzola Aiestaran. 82 urte. Uztailaren 10ean.
- Gabina Zenitagoia Egidazu. 85 urte. Uztailaren 12an.

## Copreci, saritua



Josu Jon Imazek jarri zion zilarrezko Q-a Jose Miguel Arregiri.

Coprecik kalitatearen zilarrezko Q-a jaso zuen asteazkenean Josu Jon Imaz, industria sailburuaren eskutik. Aretxabaletako kooperatibako zuzendariak, Jose Migel Arregik jaso du zilarrezko ikurra.

1989an hasi ziren Copreciko arduradunak kalitatearen gainean lanean eta ordutik merezimendu asko jaso ditu kooperatibak.

1991n kalitatearen ISO 9001 agiria lortu zuen. 1996an ingurugiroaren gestio sistema jarri zuten abian eta ISO 14.000 agiria lortu zuen. Iaz 15.000 milioiko fakturazioa izan zuen %68 esportazioetan. Izan ere, Coprecik atzerriari begira lan egiten du neurri handi batean. Bi lantegi ditu atzerrian: Mexikon eta Txekiar Errepublikan.

## Bortxaketa Aretxabaletan

Joan den ostiralean, uztailaren 16an, jai giroa zen nagusi Aretxabaletako Portasollen, auzoko jaiak hasi ziren eta. Gauean, berriz, lau lagunek 17 urteko neska bat bortxatu omen zuten, inguru hartan dagoen bainuetxe zaharraren inguruan. Daukagun informazioaren arabera, bortxatzailea bat izan

zen, nahiz eta beste hiru lagunek babesa eman zioten.

Goizaldean, neska Eskualdeko Ospitalera etorri zen eta, forenseak miatu eta gero, salaketa jarri zuen Arrasateko Ertzaindegian.

Nahiz eta oraindik inor ez duen harrapatu, Ertzaintza lanean ari da bortxatzaileak antzemateko.

## TU-Lankide berriztuta



Ekainari dagokion *TU-Lankide* aldizkaria berriztuta kale-ratu da. Azalean bertan nabari daitezke aldaketak. Hauek aldizkariaren irakurleen artean egindako inkesta batean oinarritu dira. Arduradunek arindu nahi izan dute aldizkaria.

Aldizkaria hiru zatitan banatu da. Lehen zatian kooperatibetako berriak sartzen dira, labor eta modu atseginetan. Bigarren zatia prestakuntzari dagokio. Hirugarren atalean, berriz, era guztietako gaiak doaz.

### “COOPERACION”

*TU-Lankide* aldizkaria On Jose Maria Arizmendiarririk sortu zuen, 1960an. *Cooperación* izen izena.

1964an *Trabajo y Unión* hartu zuen izena. 78an, ostera, eta Juanito Leibar zuzendari zela, *TU-Lankide* izena hartu zuen. Azken aldaketak Javier Marcos zuzendari aretxabaletarrak bultzatu ditu.



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.




Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, “Alkoholzale Anonimoek” lagundu ahal dizute!!

## Alkoholzale Anonimoak

3. eremuko Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38



# Iñaki eta Idoia Garai/ Itsasoz bestaldeko euskaldunak



Iñaki eta Idoia Garai Ormaetxea, arrasatear jatorriko argentinarrak.

Idoia eta Iñaki Garai Ormaetxea, Argentinako Mar de Plata herrian jaio eta bizi badira ere, izena eta izanaren zati handi bat euskalduna dute. Pedro Garai arrasatearra zuten aittita. Gerra garaian hara joan eta hantxe egin zuten bizimodua. Taberna Vasca izeneko jatetxea zabaldu, Elgetako neskatila polit batekin ezkondu eta bikote hau haien ilobak dira. Idoia 1979an etorri zen hona lehenengo aldiz, baina ia ez du ezer oroitzen. Iñaki lehe-

nengo aldiz etorri da.

**- Zein da jaso duzuen Euskal Herriko irudia?**

- Hemengo jendeak hangoak baino elkartasun handiagoa erakusten du. Bai jendea zein hemengo kultura askoz ere zabalagoak dira.

**- Zerbaitek harritu zaituzte bereziki?**

- Kalean ikusten den ikurrina piloak, adibidez. Baita txirrindularitzarako dagoen zaletasunak ere, edo hemen-

go gidatzeko moduak; oso txukunak zarete...

**- Nola bizi da han euskaldunatasuna?**

- Orain apur bat galtzen ari da. Normala da, izan ere, Euskal Herriatik hara joandako hiru garren belaunaldia gara gu. Hala ere, oraindik nahiko ondo gordetzen dugu.

Egia esan, hemendik hara joaten den jendea txundituta geratzen da. Batez ere euskal dantzak eta euskara dira hobeto gordetzen diren euskal ezaugarriak. Are gehiago, badago hangotarren bat baino gehiago euskara ikasten. Aipagarria da era berean, orain mus jokia ere hedatzen hasia dela. Eusko Jaur-laritzatik laguntza benetan handia jasotzen dugu hango euskaldunok euskal nortasuna gordetzeko.

**- Nolakoa da Euskal Etxe hori?**

- 1943. urtean eraiki zen. Orain 300 bazkide besterik ez gara, baina garai batean 1.200 izatera heldu ginen.

Euskara eta dantza ikas daitezke han. Orain, adibidez, Euskal Etxearen aurrealdean hormirudi bat jarri dugu esanez: "2000. urterako danok euskaraz!".

Dantzari buruz, berriz, "Beti Alai" izeneko dantza talde bat dugu. Euskal Herri-

ra etorri berri gara dantza egitera, gainera. Mendaron eta Erreterian izan gara eta agian Arrasaten ere dantza egingo dugu. 22 kide etorri gara eta hemengo jendearen esanetan, guk egiten ditugun dantza mota asko dagoeneko hemen ez da egiten. Pilota eta futbito kantxa bana era baditu Etxeak, taberna...

**- Zerbaite berezirik egiten du Euskal Etxeak?**

- Bai, urtero Euskal Aste Nazionala antolatzen da. Argentinan dauden 35 Euskal Etxeak elkartu egiten gara. Musean aritzen gara, pilotan jokatzeko dugu eta asteburuan zehar dantza ekitaldiak izaten dira.

Azken Euskal Astea gure herrian izan zen, Mar de Plata. Orduan Uruguay, EEBB eta Txiletik ere etorri ziren euskaldunak.

Honetaz gain, Gernikako Bonbardaketaren urteurrena denean ere elkartzen gara. Izan ere, hemen Gernikako Arbolaren kimu bat dugu eta haren inguruan bil-tzen gara, txistua joz...

**- Posible balitz biziko zinakete hemen?**

- Gure senideak etorri gero, bai. Hara joaten diren gehienek Euskal Herrira itzuli nahi izaten dute; batez ere nagusiek.

## S. CARRASCAL S.L.

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

*Ipek*  
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**Lore**

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50



# Goikobalu: hamar urte

Hamarkada bat daramate Goikobaluko kideek herriko bazterrak alaitzen euren aho-teskin. SUDCen barruan sortu zen orain dela hamar urte eta harrezkero, asko eta asko izan dira abeslari onak direla erakusteko eskaini dituzten emanaldiak.

**S**UDC elkarteak lehendakariz aldatzen duen bakoitzean Arrasateko herria aztertu egiten du kultura arloan gabeziarik ote dagoen. Orain dela hamar urte, eta Antton Zumalde lehendakari zela, abesbatza bat eratzeko ahalegina egin zuen SUDCek. Prentsara ohar bat bidali ostean, laurogi lagun aurkeztu ziren probetara. Adin guztietako jendea zen, edozelan ere.

1989ko azaroan lehenengo kontzertua eskaini zuten. Horretarako Ordiziara joan ziren, Tomasi Aranguren ek gogoratzen duen bezala, "lotsa kentzeko edo". Abenduan, ordea, Arrasaten eskaini zuten emanaldia.

Lehenengo emanaldi haiek

Eta ez bakarrik hori. Sariak ere irabazi dituzte onenak izateagatik. Hamargarren urteurrenaren barruan, larunbatean beste lan bat estreinatuko dute: Mozarten *Requiem*a abestuko dute Amaia antzokian. Saioa 20:00etan izango da.

SUDCen barruan garai berean sortu zen Trikiti eskolakoekin izaten ziren. Garai hartan zuzendaria Eskoriatzako Luis Ignazio Ruiz de Alegria izan zen. "Arrasaten ez genuen lan hori egingo zuen inor aurkitu eta *Jimik* gure eskaintza onartu zuenez, bera hasi zen zuzendari lanetan", dio egungo zuzendariak, Iñaki Maidaganek.

Jesus Mari Artze izan zen Goikobaluren sorreran egon zenetako bat. "Arrasaten betidanik egon da abesteko ohitura. Abesbatza sortu genuenean, kantu herrikiak eta polifoniak abesteari ekin genion. Nik neuk zarzuelak abestea ere nahi nuen, baina orain arte, behintzat, ezinezkoa izan da. Oso zaila da". Horretan bat dator Iñaki Mai-



Gaur egun hirurogei bat kidek osatzen dute Goikobalu abesbatza.

dagan bera ere "nik musikaren kalitatea bilatzen dut, baina afizionatuak gara eta hori askotan albo batera laga behar izaten da. Dena dela, behin bai-

**Requiem** lana labat  
**Amaia antzokiantz**



**Esther Atxa**  
17 urte  
Abeslari gazteena



**Tomasi Aranguren**  
60 urte  
Abeslari helduena



**Iñaki Maidagan**  
Goikobaluko  
zuzendaria



**Rakel Murgiondo**  
Goikobalu Txikiko  
zuzendaria



# e abesten



no gehiagotan erakutsi dugu geure maila”.

## ABESBATZA SARITUA

Lau sari eskuratu ditu herriko abesbatzak. Lehenengoa 1990eko uztailan izan zen. Orduan kontsolabidezko lehen saria eskuratu zuen San Vicente de la Barquerako abesbatzen lehiaketan. Hurrengo urtean, 1991ko apirilean, Zaragozako Ejea de los Caballeros herriko abesbatzen lehiaketa irabazi zuen. Jesus Mari Artzek adierazi digun bezala, “aurkeztu garen lehiaketa guztietan lehenengo saria eskuratu dugu. Txiripa izan den edo ez, ez dakit, baina horrela izan da”.

1995ean lortu zuten hurrengo saria. Tolosako abesbatzen lehiaketan izan zen. Hiru urte lehenago lehiaketa horren inaugurazio ekitaldian izan ziren Goikobalukoak eta 95ean lehenengo saria esku-

ratu zuten. Orain dela bi urte, berriz, 1997ko maiatzean, Ciezako abesbatzen topaketako lehenengo saria irabazi zuten, Murtzian.

## MUSIKA ZABALDU NAHIAN

Goikobaluk gaur egun hiru-urogei bat kide ditu. Zaharrena Tomasi Aranguren da eta gazteena, berriz, hamazazpi urterekin, Esther Atxa. Tarte-an adin guztietako gizon eta emakumeak daude. Iñaki Maidaganek dioenez, “Goikobalun beste abesbatzetan gertatzen den justu kontrakoa pasatzen da. Emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino; hala ere, gutxi dira. Jenderalean gizonezkoak halako bi behar izaten dira, ahots kontuak direla eta. Goikobalun gizoni baxuago abesteko agindu behar izaten diet, bestela emakumei ez zaie behar bezala entzuten eta”.

abatean izango da,  
antzeko 20:00etan




**Maribel Hernandez**  
Goikobaluko  
lehendakaria

## KONTUAN IZATEKOAK

- 1989** • Aurkezpen emanaldia.
- 1990** • Kontsolabidezko lehen saria San Vicente de la Barquerako abesbatzen lehiaketan (Kantabria).
  - Lehenengo saria Ejea de los Caballerosoko Abesbatzen lehiaketan (Zaragoza).
- 1992** • Tolosako abesbatzen lehiaketan inaugurazioko emanaldia.
  - Vivaldi programaren grabazioa Concerto Musika Orkestrarekin.
- 1993** • Rachmaninoff-en Bezperak lanaren lehen emanaldia.
  - Beethovenen 9. sinfonia, Ukrainako orkestrarekin.
- 1994** • Publikoaren, epaimahaiaren eta derrigorrezko obraren lehenengo sariak San Vicente de la Barquerako lehiaketan.
- 1995** • *Euskaldunok Kantan* diskoaren grabazioa.
  - Carmina Burana lanaren lehen emanaldia Errusiako Orkestra Sinfonikoarekin.
  - Te Deum eta Requiem lanen lehen emanaldia, Letoniako Orkestrarekin batera.
  - 1. saria Tolosako abesbatzen lehiaketan.
- 1996** • Emanaldia Bucaresteko Orkestra eta Abesbatzarekin, Santanderren.
- 1997** • 1. saria Ciezako abesbatzen lehiaketan (Murtzia).
- 1998** • Bidaia Argentinara.



Dena dela, Arrasaten ez ezezik, kanpoan ere izan dira behin baino gehiagotan. Azkenengo bidaia handia iazko udaran egin zuten. Orduan Argentinan izan ziren hilabete oso batez, herriz herri abesten. "Bidaia polita izan zen, baina asko nekatu ginen. Alde batetik bestera aritu ginen egunero. Itzulera ixil-ixilik egin genuen", dio Iñaki Maidaganek. Datorren urtean ere beste bidaia bat egitekotan dira. Oraingoan Kanada aldera joateko asmoa dute. "Bidaiok Arrasaten dauden atzerriarren bitartez edo atzerriarrenda dauden mondragoetarren bidez antolatzen ditugu. Lehenengo bidaia luzea Galesera egindakoa izan zen. Hamar egun egin genituen han eta bikaina izan zen, oso, esperientzia".



Goikobalu Txiki hogeita hamar bat neska-mutikok osatzen dute.

## MOZARTEN REQUIEMA

Larunbatean bertan dira euren azken lana aurkeztekoak. "Jakin badakigu ez dela egunik egokiena horretarako, baina ezin izan da lehenengo izan. Dena dela, jendearen orain arteko harrera ona izan da eta horixe espero dugu". Horixe adierazi digu Iñaki Maidagan zuzendariak.

Wolfgang Amadeus Mozarten *Requiem* lana eskainiko dute. "Abesbatzentzat bereziki sorturiko lana delako aukeratu dugu. Hamabi zenbaki ditu eta hiru izan ezik, beste guztiak abesbatzak abes- tekoak dira. Bakarlariak kanpotik ekarri behar izan ditugu. Gu ez gara profesionalak eta emanaldi bikaina egin nahi

izanez gero, oraingoz horrela egin beharra dugu". Donostiako Orfeoiko lau kide arituko dira soprano, kontralto, tenore eta baxu lanetan. Orkestra, berriz, Iruñeko Concerto Orkresta izango da, Jesus Mari Etxeberriaren zuzendaritzapean. "Abeslari onekin abes- tea onuragarria da guztiontzat. Larunbatekoa, gainera, ikas- teko beste esperientzia bat izango da", baieztu digu Tomasi Arangurennek.

## GOIKOBALU TXIKI

"Goikobaluk, Errealak bezala, harrobia behar du eta horregatik sortu zen Gokobalu Txiki", gogoratzen du Tomasi Arangurennek.

Horregatik, 1994an Goi-

kobalu Txiki sortu zen, Anuska Ezkurrak eta Maider Ruizek bultzatuta. Harrezkero hainbat kontzertu eskaini dute bai Arrasaten, bai kanpoan ere. Horietako lehenengoa Donostiako belodromoan, On Joxe Barandiarani eskainitako omenaldian, hain zuzen ere.

Harrobiko 30 bat neska- mutikok ere erakutsi dute abeslari onak direla. Txikiak izateagatik ez dira atzean gelditu eta birritan bigarren sailkatu dira Ereintza elkarteak antolatutako Errenteriako Gabonetako Abesti txapelketa ospetsuan.

Gaur egun Rakel Murgiondok zuzentzen du gazte- txoen abesbatza. Bere ustez "Goikobalu eta Goikobalu

Txikiren arteko harremana ezinbestekoa da gaztetxo- en ilusioei eusteko, etorkizun- an musikan aurrera egiteko. Dagoeneko badira helduen abesbatzara pasatu diren gazteak ere". Eta bi abesbatzak elkarrekin ere aritu dira behin baino gehiagotan.

Carmina Burana lanean, esaterako, edo Santamasetan eta lehenengo aldiz egin zuten Txerri Dantzan.

Goikobalu Txikiko abes- lariak astean birritan elkartzen dira Gazteluondoko ikas- tolan. Asteazken eta ostegun- tan 20:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren. ■

Marijo Deogracias



MARKO-JARTZEAK  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



PEUGEOT

Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



# Maala eta Ferrerías / Antzinatasunaren adierazgarri



Maala kalea.



Ferrerías kalea.

Uda garai honetan jaiak ugaldtu egin ohi dira eta Arrasaten ere halaxe izaten da. Ostegunean, adibidez, Maalako jaiak hasi ziren, igandean segitzeko asmoarekin. Datorren astelehenean, berriz, Ferrerías kalekoak dira. Ohi bezala, auzo hauetara jo dugu beraiei buruz apur bat gehiago jakiteko asmoz.

## MAALAKO ERREBALA

Orain herri erdigunea dela esaten badugu ere, antzina Arrasateko harresitik kanpo zeuden hiru auzoetako bat dugu. Errebal berbaren esanahia, arabieraz "kanpo aldeko auzoa" esan nahi du. Banco Guipuzcoanotik hasi eta hilerrira bidean dagoen Garmendia okindegiraino doa.

Badago eraikuntza aipagarriarik, Banco Guipuzcoano bera, adibidez, Arrasaten Adan de Yarza moduan ezauna da.

Okendo Etxea ere aipagarri da. Berez jatorri noblea badu ere, gauza askotarako erabili da urteetan zehar etxe hau: burdindegiko biltegi moduan, elkarte politikoa ere izan da, koartela, herrian zine publiko moduan erabili zen

lehenengo tokia, trinketea eta baita bolatokia ere.

Maala Errebalak 1073. urtean ermita berezi bat izan zuen: Maria Magdalena izenekoa. Erreka eta zubiaren ondoan zegoen. Ermita hau, legenardundegi edo leproseria izan zen. Ondoa, Magdalena edo San Lorentzo izeneko eritetxea zegoen, ermitarekin batera 1771. urtean lurrera bota zena.

Aipagarria da kale honetako Sola jauretzea. Gaur hizpide ditugun Maala eta Ferrerías kaletako bi familiak sortu baitzuten. Ferrerías kalearen goialdean, Gazteluondoko eskoletan, zegoen dorretxe baten ondorena zen jauregi hau.

Aipatzen ari garen jauregia, berriz, Maalako zubiaren ondoan eraiki zuen joan den mendearen erdialdean Francisco de Sola eta Nanclores jaunak. Zuhaitz eta lorategiz inguratuta zegoen eta 10.000 metro karratu lur zituen bueltan. Zedro ikusgarriak omen zituen, inguruko ederrenak, ehun urtekoak eta zaharragoak.

Lorategia gaur egungo San Juan etxe multzoa dagoen eremuraino zabaltzen zen.

## FERRERIAS KALEA

Alde Zaharreko kalerik ezagunena izango da hau. Portaloian hasi eta Gazteluondoraino heltzen da. Izena, aldiz, antzina kale horretan zeuden sutegietatik dator. Garibaik "Arotzcale" euskal izena jarri zion, gaztelaniaz "Herrerías" moduan itzulita, nahiz eta gaur egun ez den erabiltzen.

Kale honen historian, aipagarriak dira 1516. eta 1666. urteetan izan zituen bi suteak. Bigarrenari buruz dago informazio gehien. Kontatzen denez, abenduaren 24an izan zen sutea eta hamalau etxebizitza erre eta beste batzuk bota egin behar izan zituzten sua geldiarazteko. Artean Mondragoe ia dena egurrezkoa zen eta herri osoa erretzeko arrisku handia izan zen.

Errosarioko Amaren irudi bat hartu eta jendea kalera atera zen sua geratzeko eskatuz. Hala izan zenez, ordutik aurrera, abuztuaren 15ean Paduako San Antonio eta San Nikolasen irudiekin batera Errosarioko Ama ere kalera ateratzen zen prozesioan, eskerrak emateko. Orain ez da egiten.

Kale horretan Portaloiko arkuak da benetan esanguratsua. 1768. urtean egin zen eta Gazteluondora ipini. Baina errepide berria egin zenean (Arrasate Pasealekua), Gazteluondoko errepide gutxi erabiltzen zuen jendeak eta arku oso dotorea zenez, Portaloian kokatzea erabaki zuen udalak. Beraz, hasieran Portaloian zegoena dago orain Gazteluondora.

Baina sute ikaragarriek ez zuten lortu kale horren ondare guztiak erretzea. Oraindik hantxe ikus daitezke 28. zenbakian, adibidez, Barrutia-Mendia eta Gabiriatarren jauretzea. Aipagarria da Gabiriatarren etxea Bergarakoaren ondorena dela eta badakigu, jakin, haien arbasoak Nafarroako errege-erreginen alde egin zutela 718. urtetik aurrera. Hone-la, Santxo Abarka Erregeri lagundu zioten Iruñea defendatzen aritu zenean. Eta ostean, Santxo Indartsuaren agindupean ere izan ziren Navas de Tolosako borrokan.

**Informazioa:**  
"Mondragon, sus calles", Joxe Letona



## IMANOL EXPOSITO (BIDAIAZALEA)

# “EEBBetako parkeak”

Imanol Exposito arrasatearrak oso gustuko du bidaiatzea. Besaide Mendizale Elkarteko lehendakaria da 1997. urtea ezker, baina mendiaz gain, beste leku batzuk ikusteko astia ere hartu du. Europako hainbat herrialdetan izana da, eta iaz, adibidez, EEBBetako zenbait parke natural bisitatu zituen. Laster, Alaskara doa.

— Zenbat leku bisitatu dituzu?

— Pirinio mendiak betidanik ezagutzen ditut, eta Europan ere dexente ibili naiz. Norvegian, Finlandian, Islandian, Suedian, Turkian... Iaz Iparrameriketan izan nintzen, parke naturalak ikusten. Aurten, Alaskara joango naiz hiru bat astetarako.

— Zein paisaje gustatu zaizu gehien?

— Estatu Batuetako par-

ke naturalak ikusgarriak iruditu zitzaizkidan. Lurraren koloreak eman zidan batez ere atenzioa: oso gorria zen, bakeroen pelikuletan ikusten den modukoa. Europatik Suitza gustatu zait. Islandia oso bestelakoa da: dena beltza da, eta gainera berdea. Korsika ere izugarri gustuko dut. Itsaso erdian Pirinioak egongo balira bezala da.

— Eta kulturalki?

— EEBBetan hainbat kultura daude, beren artean oso nahasiak. Pertsonarik argienak, berriz, Mediterraneo alde meneko herrialdeetakoak iruditu zitzaizkidan, eta horietatik gehien turkiarrak. Kultura gehien, berriz, Europak du: elizak, etxe ikusgarriak, monumentuak eta ikusteko bestelako gauzak. Iparramerika Europaren kopia iruditu zait, oraingoz behintzat, ikusi dudaren arabera.

— Herrialderen batek sortu dizu zirrara bereziren bat?


— Aparteko zirrarak ez. Arrasatetik ihes egin beharko banu eta tokiren bat aurkitu galtzeko, San Frantziskora joko nuke. Han mota guztietako jendea dago: izugarriko bizi maila duena, bizi maila ertaineko jendea eta baita kalean bizi dena ere. Guztiek errespetatzen dute elkar. Bakoitza besteengandik independente da. Jendea oso indibi-

duala eta anonimoa da. Kultura pilo bat daude nahastuta. Asko gustatu zitzaidan beste toki bat Istanbul da.

— Bidaiatzeko zaletasuna nola sortu zitzaizun?

— Mendira joaten den jendea dexente mugitzen da, eta ni ere bai. Berez sortutako zaletasuna da.

**“Beste herrialde eta kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du bidaiatzeak”**





# “ikusgarriak dira”

## — Urruneko herrialdeetara noiz hasi zinen bidaiatzen?

— Azkenengo hamar urteotan. Korsikara 1985ean edo 1986an joan nintzen, baina gainerako guztietara 1989tik aurrera joan naiz.

## — Bidaiatzeko zein garraio mota erabiltzen duzu?

— Antolatutako bidaietara joaten naiz. Hizkuntzak jakitea beharrezkoa da Europan mugitzeko, eta horiek jakin ezean erosoagoa da taldean bidaiatzea. Taldea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta errazagoa da moldatzea.

Harreman sakonagoak egiten dira. Bidaia gehienak agentzia berarekin egin ditut. Gehiena prestatuta eramaten dugu: furgoneta, kanpina, lo egiteko lekua... Islandian, ikastetxetan eta aterpetxetan egiten genuen lo, hotel gutxi baitaude. Alaskara, kanpinean goaz, eta bidaiaren antolatzaileek jartzen dizkigute kanpin dendak, sukaldea...

## — Lekuak aukeratzekoan non oinarritzen zara?

— Lehenengo Europa ezagutu nahi nuen, eta erdia edo ikusia dut dagoeneko. Italia-

ko iparralde gehiena falta zait, Alpeetan Dolomiti ingurua...

Nepalera joateko gogoia ere banuen, eta orain joan egin zait piska bat. Peru eta Mexikoko Yukatan erdiuhartea ere ikusiko nituzke, eta poliki-poliki, leku horiek ikusten joango naiz.

## — Zein gomendio egin-ko zenioke bidaiari bati?

— Lehenengo eta behin, bisitatu behar duen herrialde-tik zer ikusi nahi duen argi izan behar luke bidaiariak. Ondoren, nola joan erabaki behar-ko luke, eta zeinekin. Aldean

zer eraman behar den eta zer ez, berriz, esperientziak erakusten du. Lekuaren arabera, bizkar zorro bat eta lo egiteko zakua alboan eramatea garrantzitsua da, gauak toki txar batean harrapatuz gero ere, non lo egin edukitzeko.

## — Horrenbeste bidaiatzetik zer ikasi duzu?

— Munduan ez gairela bakarrak, eta mundu honetan kultura asko daudela. Kultura bakoitzeko pertsonak bere bizikera du, eta elkar errespetatu behar dugu, zerbaiten aurrean ados ez egon arren.



*Zeramika erakusketa  
eta salmenta*

Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80  
ARRASATE







## HERRIAZ OROIT

Santamainako jaien barruan, jendeak gustura asko bete zuen tripa Extremadurako jakiekin. Extremeño askori herrimina samurragoa egingo zitzairen modu honetan. Beste batzuek,

berriz, bestelako zaporeak dastatzeko aukera paregabea izan zuten. Kontuak kontu, denak gustura geratu ziren!



## KINTO BAZKARIA

1948ko soldadugaiek bilkura eta bazkaria egin dute aurten Mondragon Hotelean. Egia esan, iaz baino (168) jende gutxiago bildu ziren larunbatean (39). Hori dela eta, mota honetako bilkurak bost urtetik behin egitea erabaki zuten.

## OHITURA ARRAKASTATSUA

1992. urtetik hona, Monte tabernak Tourraren inguruko lehiaketa egiten du uztailaren aldi honetan. Arrakasta majoarekin, gainera. Izan ere, aurten 397 pertsona parte hartzen ari dira norgehiagoka berezi honetan. Arrasateko Txirindulari Elkarteak antolaketa lanetan laguntzen du. Interneten ere agertzen da lehiaketa honen berri, Danka enpresak egindako webgunean.







## ARRASATEKO ETORKIZUNA

“Tripa handi” lagun talde honek Arrasateko ondorena gordetzen du bere baitan. Sanjuanetan argazki hau atera zuten, erditzeko gimnasia egiteko elkartu ziren batean. Tripa bariko bakar hori dute irakasle, Txaro Arregi.

## BERDINTASUNETIK HURBILAGO



Honekero gehienek jasoko zenuten etxeetan emakumeen aukera berdintasuneko udal egitasmoa. Modu berezi honetan eman digu udalak emakumearen alde egiten ari denaren berri. Lau urteko plana dugu, bi urte bete dituen. 8.500 ale banatu dira.



Argazkia: Zapping argazki bideoa

## TXIKIAK BAINA BIZKORRAK

Santamainako jaietan motor txikien erakustaldian ondo baino hobeto pasatu zuten gerturatu ziren guztiek. Auzoko lagun batzuen artean antolatuta zuten bertako neska-mutikoentzat. Kanpotik etorri ziren “motorre-  
roek” ere ikuskizun bikaina eskaini zuten. Errepidea bustita zegoen eta “derrapeak” ikusgarriak izan ziren.



## ZORIONEKO IZAN!

Marimar eta Jabi maiatzaren 15ean ezkondu ziren, San Joan Bataiatzailearen parrokian. Osteen, Dominikar Errepublikan izan ziren. Noski, esan beharrik ez dago gustura asko ibili zirela eta orain ere gustura asko omen dabilzala bata bestearekin. Hala izan bedi!



## Espainiako txapelduna



Mari Jose Gilek urtezko bi domina eskuratu zituen asteburuan, Espainiako beteranen txapelketan.

58 urteko emakume arrasatear honek 1.500 eta 5.000 m.ko lasterketetan hartu zuen parte, Bartzelonan. 59 eta 60

urte bitarteko kirolariak izan zituen lehiakide, baina, berriz ere, onena zela erakutsi zuen arrasatearrak.

Marijosek berak adierazi digunez, gainera, "hasiera batean larunbatean 1.500 m.koa eta igandean 5.000koa ziren jokatzekoak, baina azkenean bi probak larunbatean egin behar izan genituen, ordu eta laurdeneko tartarekin". Hori dela eta, 1.500ekoa egin eta gero, 5.000koan ateratzea erabaki zuen, baina amaitzeko asmoarekin baino ez.

Azkenean, ordea, Mari Jose Gil korrikalari beteranok 1.500 m.etan 6 minutu eta 3 segunduko denbora egin zuen.

5.000 m.etan, berriz, bere mailako errekorra gainditu zuen, 23 minutu eta 21 segunduko denborarekin.

## Brontzezko domina



Jonathan Perez pertika jauzilaria gazteak brontzezko domina irabazi zuen Eibarren aste-

buruan jokatu zen Gipuzkoako txapelketan. 4 m.ko jauzia egin zuen arrasatearrak. Hamaika aldiz lortu du aurtun 4 m.ko jauzia hobetzea. Arrasateko errekorra ere gainditu du Jonathanek, 4 m eta 20 cm.rekin. Hori maiatzaren 12an izan zen, Anoetan.

Jonathan Perezek hainbat txapelketatan lortu du lehenengo tokia aurtun. Lehenbizikoa iazko azaroan izan zen, parte hartze libreko probetan. Orduz gero Euskal Herriko txapalketan, Gipuzkoako txapelketan eta Euskal Herriko Taldekako txapelketan ere lehenengo tokia lortu du.

Datorren urteari begira Jonathan Perezek lau metro eta 40 cm.ko jauzia lortu nahi du, Espainiako txapelketara joan ahal izateko.

## FUTBOLA Iker Lazpiur



Joan den astean Iker Lazpiur Mondrako jokalaria Errealak fitxatu zuela esan genizuen. Jakin dugunez, ordea, aurrendenboraldia jokatzeko ari da. Horrek ez du esan nahi Errealak fitxatu duenik, Jose Luis Ezkurra lehenetakariak adierazi bezala.

## ESKUBALOIA Fitxaje berriak



Arrasate Eskubaloia taldeko senior mailakoak ere hasiak dira entrenatzen. Joan den astetik ari dira Bernardo Balerdiren aginduetara. Aurtun Almenekin sinatutako hitzarmen bat dela tarteko, zortzi jokalar berri ari dira taldean. Guztira 24 joka-

lari dira. Horregatik, baliteke hurrengo denboraldian senior mailako bi talde izatea herrian. Ligari dagokionez, irailaren azkenengo asteburuan hasiko dira jokatzeko, nahiz eta tartean lagun arteko partidak ere jokatu dituzten.


## SASKIBALOIA Denboraldia prestatzen



Arrasateko Saskibaloia taldeko jokalariek opor ostean ekingo diete entrenamenduei. Irailaren hasiera aldera hasiko dira senior, junior eta haur mailako taldeak. Hurrengo denboraldian, gainera, lau talde izango dira federatuak herrian. Izan ere, nesken haur mailako talde bat ere arituko da saskibaloian. Talde nagusiari dagokionez, "herriko tal-

dean aritutako jokalar batek beteko du entrenatzaile lana, baina oraindik zurrak ez denez, ez dugu izenik aurreratu nahi", adierazi digute jokalariek.

## TXIRRINDULARITZA Denetik



Nahiz eta zortetik izan ez Elgetako igoeran, Born Jay taldeko txirrindulariak podiumera igo ziren Urdiainen. Jon del Rio bigarren izan zen. Olarra taldeko Samuel Sanchez asturiarrak baino 19 segundu gehiago behar izan zituen helmugaratzeko. Del Riok, esprinterak izan ziren bigarren tokia, Iberdrola, Banaka eta Caja Rural taldeetako txirrindulariek. Ostiralean Ermuan eta igandean Astigarragan izango dituzte probak.

Fagor taldeko gazteak Ber-

garan izan ziren, Santa Marina sarian. 126 txirrindularietatik 82 baino ez ziren helmugaratu eta oraingoan ere, Oriako taldeko txirrindulari batek eskuratu zuen garaipena, Jose Arrizabalagak. Fagorrekoak gaizki aritu ziren. Txema Galanek zulatua izan zuen hasieran. Josu Beitiak arazo mekanikoak zirela eta, lasterketa laga behar izan zuen, eta Odriozola eta Bernal, kaleratu egin zituzten epaileek.

Igandean, bestalde, Aztiariako Igoeran izan ziren eta Fagorretik Josu Beitia izan zen helmugaratu zen bakarra, 31. tokian.

Bigarren urteko haur mailako txirrindulariak Txapel Gorri sarian izan ziren, Ordizian. Oriako Aitor Setienek irabazi zuen. JMAtik Aitor Frutosen baino ez zuen lortu amaitzea. Larunbatean Azpeitira joango dira, denboraldiko azkenengo lasterketara.



# Makatzenako txapeldunak

Eskez binakako benjamin eta infantil mailako Makatzenako txapelketako finalak jokatu ziren joan den larunbatean. Benjamin mailan Fernandez-Bolinaga bikotea 22-10 nagusitu zitzaizen Urrutia eta Elorzari. Erraz irabazi zuten, hasieratik izan zuten-eta partida eskuetan.

Infantiletan, berriz, Arroia-be-Zuazua izan ziren garaile, 22 eta 20ko emaitzarekin, Jimenez anaïen aurka jokatu-tako norgehiagokan. Nahiz eta Jimenez anaïek oso ondo jokatu zuten. Arroia-be-Zuazuak 4 eta 0eko aldearekin hasi zuten, baina berehala berdindu zuten Jimenez anaïek. Hamabosna ere izan ziren. Hortik aurrera oso parekatsu aritu ziren. Azken pilotakadak erabakigarriak izan ziren



Fernandez-Bolinaga eta Arroia-be-Zuazua txapeldunak.

infantil mailako pilotari hauentzat. Hogeina ibili ostean, 22 eta 20 gailendu ziren Arroia-be-Zuazua.

## BESTE PARTIDAK

Senior mailan Urizarren-Belategi 22, Lazkano-Domingez

11 amaitu zen. Beteranoetan, Pedritok eta Juliok 22-14 garaitu zituzten Lazkano eta Bengoa. Profesional ohien artean jokatu-tako partidari berriz, Urria-Zubillagak 22 eta 18 gailendu zituzten Errasti eta Rezano.

## Bizkorrak hirugarren, Donostia Cup txapelketan



Jokalariak euren gurasoekin, azken partidari.

Donostia Cup txapelketan hirugarren gelditu ziren Jose Ramon Zabaletak entrenatzen dituen infantil mailako Arrasateko taldeko jokalariek. Guztira 44 talde aritu

dira maila horretan. Arrasatearren azken partida Kanarietako talde baten aurka izan zen. 3-0 galdu zuten eta hirugarren sailkatu ziren, orain dela hiru urte irabazi

zuten txapelketan. Donostia Cup lehiaketan 3.500 haur aritu dira, 166 taldetan. Arrasatearrek, gainera, beren mailan Euskal Herriko irabazle izatea lortu zuten.

## Broad Peak

Broad Peak mendira abiatu zen Arrasateko espedizioa bi kide jadanik igo dira gailurrera. Familiartekoei aditzera eman digutenez, Arrasateko espedizioarekin joan ziren bi lasartearrak, Xabier eta Pablo Rozas anaïak izan dira gailurra egin dutenak, zortzimilakoan. Mikel Arana, Josu Pereda, Jose Luis Martin eta Josemiel Aranzadi, bestalde, gailurra egiteko zain daude.

Eguraldia ez da horretarako proposena eta hobera egin bezain laster gora egiten saiatuko dira, astelehenean aditzera eman zutenek Karakorumei mendilerrotik. Osterantzean, espedizioa kideak ondo daude osasunez bere sendiek kontatu berri digutenez.

Broad Peak 99 espedizioa ekainaren 13an abiatu zen Pakistan aldera. Gailurra, hila-betera egin dute. Hasierako asmoak bete dira, beraz! Zorionak lortu dutenei eta animoak saiatzen ari direnei!

## Europatik bueltan

Asteazken ilutzean itzuli zen Ane Lopez de Bergara Europako hegats txapelketatik. Herriko igerilari honek garai-peginik lortu ez duen arren, iaz baino txapelketa hobe egin duela aitortu digu. "1.500 m.etan ezin ezin, gustura nago beste lasterketetan lortutakoearekin. Errusiarrak eta greziarrak izan dira nagusi, baina neurri batean ulertzekoa da. Haieki ordaindu egiten diete eta entrenamenduetan ere euren gainean daude. Asko eskatzen diete. Hemen dagoen filosofia aldatu ezean, zaila izango da haien mailara iristea".



# Hego Afrikako eta Txubashiako dantzak

Nazioarteko folklore jaialdia izango da Monterron parkean uztailearen 27an, gaueko 22:30ean. Hego Afrikako Thabisong Youth Club eta Txubashiako dantza taldeek beren kultura mondragoetarren eskura jarriko dute.

Txubashiako errepublikako kantu eta dantza taldea 1942an sortu zen. Hasiera batean abesbatza moduan sortu zen, eta Fedor Pavlov eta Vasily Vorobyev ziren zuzendariak, nazioko musika folklorikoaren alde lan handia egin zutenak.

Gaur egun profesional ez osatutako taldea da. Dantza talde honek Txubashiako errepublikako historia eta hango jendearen bizimodua agerian



Dantza saioa 22:30ean izango da.

jarri ohi ditu bere emankizunetan. Taldea osatzen duten musikari, kantari eta dantzariak beren errepublikatik kanpo ere hainbat emanaldi eskaini dituzte.

## ZULUEN NAZIOA

“Thabisong Youth Club” taldeak Afrika hegoaldeko ohitura eta historia islatuko du bere dantza emanaldian, zulu herriarena hain zuzen ere.

Bantuen taldeak animalia hazkuntzatik bizi ziren garaiak atzean gelditu dira, baina Thabisong Youth Club taldeak garai haiek ekarriko ditu gogora: emakumezkoak lurra lantzen, seme-alabak behiak zaintzen eta txaboletan bizi zireneko garaiak, hain zuzen ere. Horretarako dantza eta kantuez baliatuko dira.

“Thabisong Youth Club” taldea 1980an eratu zen, gazte zuluak bateratzeko asmoz, beren iragana gogora ekar zezaten.

Nazioarteko folklore jaialdi hau Arrasateko Udaleko Kultura Sailak antolatuta du.

Sarrera 1.000 pezeta kostatuko da. Gazte txartelarekin, berriz, 800 pezeta.

## Erretiratuen eskulan erakusketa Toki Argin



Margo ikusgarriak egon ziren.

Santamaina auzoko Toki Argi erretiratuen etxean eskulan erakusketa egon da ikusgai. Erakusketa uztailearen 16an zabaldu zuten, ostiralean, eta igandea arte egon zen zabalik.

Erakusketan Toki Argi erretiratuek urte guztian jasotako ikastaroetan egin dituzten lanak jarri zituzten jendaurrean.

Dena den, hau ez da Toki Argiko erretiratuek egin duten lehenengo erakusketa. Orain bederatzi urte egin zuten lehenengoa, eta harrezkero urtero antolatzen dute Santamainako jaiekin batera. Halere, jendearen aurrean erakusten dituzten lanak ez dituzte inoiz errepikatzen.

Erakusketan 14 gizon-emakumeren lanak ikusi ahal izan dira, era askotakoak: eskuz brodatu eta margotutako izarak, ohe estalki eta mantelak, margolanak, egur tailuak, latoizko irudiak... Guztiak ere, pasa den irailetik uztaileara bitarteko ikastaroetan egingoak.



Hariz eginiko lanak ugariak ziren.

## Aire zabaleko azken filma

Joel eta Ethan Coen anaia eza-guneri *El gran Lebowski* filmak emango dio amaiera Monterroneko aire zabaleko zine zikloari. *Sangre fácil* eta *Fargo* filmen zuzendariak Jeff Bridges hautatu zuten pelikula protagonista bezala. Jeff Lebowski da bere pertsonaia, nortasun nahaste baten biktima. Jeff, 70eko hamarkadan bizi den gizona, Pasadenako aberats bat delakoan arituko dira bera inguratzen duten pertsonaiak. Bere buruari Dude deitzen dio. Alfonbra baten inguruan bueltaka hasiko da eta sekulakoak eta bi pasatu beharko ditu nor den argitu aurretik. Bridgesek John Goodman du lagun filman.

Coen anaiek kontatzen duten istorioa komedia-thriller da, droga, gezur, sexu eta bestelakoekin. Filma 22:30ean izango da.



SILVIA TAUSCHKE (LEHENHITZ-EKO LOGOAREN EGILEA)

## “Gaia oso erakargarria iruditu zait”

Silvia Tauschkek irabazi du Lehenhitz Hezibideko haur ikastolaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa. Silvia Tauschke 28 urteko urretxuarra da, eta Arrasaten egiten du lan, “Bertan” publikitate eta diseinu grafikoko enpresan.

— Nola animatu zinen lehiaketan parte hartzea?

— Lanean ari ginela, jakinarazi ziguten. Dena dela, enpresa ez da lehiaketetara aurkezten. Hori dela eta, neure kabuz aurkeztea erabaki nuen.

— Zergatik hartu duzu txoria zure anagramaren oinarri moduan?

— Beharrezkoa zen logotipoan Arrasate edo bailarako toki zein gauza tipiko bat azaltzea. Nik inguru hauetatik gehien ezagutzen dudana Urkulu aldea da, eta banekien parke ornitologiko bat zela, eta babestua zegoela. Horixe hautatu nuen, beraz, umeak eta ekologia uztartzeko.

— Txoriaz gain, zein elementu gehiago sartu dituzu logotipoan?

— Txoria da elementu nagusia. Txoria hegan hasten da, umeak ere haur eskolan daudenean hasten baitira etxetik ikastolara irteten. Hots, beren kabiatic alde egiten, nolabait esateko. Behean arku bat dago, eta horrek babesa adierazten du. Koloreei dagokienez, urdina eta berdea erabili ditut. Urdina urarekin lotzeko, eta berdea mendiekin.

— Naturarekin erabat lotu duzu, beraz, Lehenhitz-en irudia izango dena.

— Bai. Polita iruditzen zait umeak naturarekin lotzea eta naturari haurren berezko garapenean garrantzia ematea.



— Denbora asko igaro duzu logotipoa egiten?

— Ez gehiegi, ideiak nahikoa garbi nituen eta. Oinarriak irakurri nituenean argi nuen naturarekin lotu nahi nuela, eta Urkuluko parkea ezagutzen nuenez, ez zitzaidan horrenbeste kostatu. Zirriborrea egitea da denbora gehien kentzen duena.

— Zein prozedura erabili duzu?

— Ideia aurkitu arte, zeri buruz egin pentsatu dut. Gero hainbat zirriborro egin ditut, eta ondoren zirriborro horietan koloreekin jolastu dut, egokiena aukeratzeko. Bestalde, formak ere kontuan izan behar dira, gaiaren arabera, zenbait forma ausartegiak izan baitaitezke. Gutxi gorabehera dena eginda dagoenean, proportzioak izan behar dira kontuan, eta zuri-beltzean, koloretan, urrutitik... ongi ikusi behar da irudia. Azkenik, oso garrantzitsua da jendeak irudia ikusten duenean logotipoa ezagutzea. Tipografia egokia aukeratzeko ere garrantzitsua da.

“Hegan hasten den txoria da elementu nagusia logotipoan”

## aste gazte

### ■ UDAKO OPORRALDIAK

• Uda partean komeni da dokumentazioa eta seguruak aldean edukitzea. Gazte edo ikasle txartela eta kanpista edo aterpetxe txartela edukiz gero, abantailak izan ditzakezu. Behar den dokumentazioa eta non aterra daitekeen jakiteko, pasa zaituz Gaste Bulegotik.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Gipuzkoako Agiritegi Orokorrek Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko bi beka eskuratzeko deialdia egin du. Azken lau urteotan unibertsitateko goi titulua lortu dutenei zuzendua. Epea: irailak 1.

### ■ LANA

• Disneyland Parisen lan egiteko eskaintza jaso dugu; garbiketa, harrera, salmenta eta atrakzioetan... aritzeko pertsonak behar dira.

### ■ LEHIAKETAK

• Emakumeak Kontari VI. narrazio lehiaketa Bilboko Emakume Zerbitzuak eraturik. 18 urtetik gorako emakumeei zuzendua, gai libre eta 5-12 orri bitarteko luzerako narrazio orijinalak behar dute izan. Epea: irailak 30.

• Portugaleteko Udalak Portugalete Uri Urena IX. Ipuin Lehiaketarako deia egin du. 14-30 urte arteko idazleek parte hartu ahal izango dute, euskaraz zein gaztelaniazko lanekin eta 6-12 orri arteko luzapenarekin. Epea: irailak 6.

• Zumarraga-Urretxuko udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte: pintura, komiki, bertso-paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 10.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Apartamentuak eta txaletak salgai Torreviejan. 7.800.000 pta.tik 25.000.000 pta.ra. Tel.: 966 70 49 41.

• Etxebizitza salgai Arrasateko erdialdean. Tel.: 609 42 49 79.

### 3. Errentan emateko

• Apartamentua alokatzen dut uda honetan, Laredon. Tel.: 943 79 52 80.

• Gela bat jarri nahi dut alokairuan. Tel.: 943 79 68 00.

• Etxebizitza alokatzeko. Erdigunean dago. Bi solairu eta teilatupea ditu, lau gela, bi bainugela eta komuna. Tel.: 943 79 79 51.

• Igerilekua eta aire girotua duen apartamentua alokagai Saloun irailan, hondartzatik hurbil. Tel.: 943 79 38 84. 20:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokatzeko Donostian. Irailako lehen hamabostaldian eta hortik aurrera ere bai. Tel.: 943 79 82 47 eta 943 71 96 29. Elena.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

• Lau ikaslek etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten. Tel.: 943 39 46 33.

• Errentan hartzeko etxebizitza behar da Arrasaten, lau ikaslerentzat. Tel.: 94 442 17 87. Ander.

• Pertsona batek etxe bat hartu nahiko luke errentan. Tel.: 943 31 14 57.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin osatzeko. Tel.: 943 69 24 03. Leire. Eguerdietan deitu.

• Hiru pertsonarentzako etxebizitza alokatuko genduke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 09 70. Amaia. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera deitu.

• Lau ikaslek etxebizitza behar dugu alokatzeko. Tel.: 943 88 50 74. Nagore. Arratsaldean deitu.

• Etxebizitza errentan hartuko nuke San Andres aldean. Tel.: 606 86 71 97. Eburne.

• Bikote profesional batek etxebizitza bat beharko luke alokairuan Arra-

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

## LANA

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

17. Eskaintzak
18. Eskakerak
19. Bestelakoak

## HARREMANAK

20. Eskaintzak
21. Eskakerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

## DENETARIK

24. Erosi
25. Bestelakoak
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## ARRASATE

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

saten. Tel.: 943 77 18 23.

• Ingeniaritzako 3. mailako lau neska adoresuk ikasle etxebizitza alokatuko genduke. Tel.: 943 88 51 83. Alaitz.

• Hiru ikaslek etxebizitza behar dute. Tel.: 906 87 85 07. Aitziber.

• Etxebizitza alokatu nahi dut Arrasaten. Tel.: 943 79 99 82.

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Arratsaldez. Irene.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Altamira auzoan. Tel.: 943 77 13 20.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Bilbon. Tel.: 943 79 48 53. Gauze.

• Ikasle etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Donostian. Tel.: 943 71 50 87. Aitor, arratsaldez.

• Etxea osatzeko 3 neska ikasle behar dira Donostia erdialdean. Tel.: 943 79 50 99.

• Donostian etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 943 79 47

25. Ane.

• Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da Arrasaten. Tel.: 617 516 586. Ruth.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• Txabola alokatzen dugu Opakuako mendietan, inguruan 5.000 m<sup>2</sup> dituen. Tel.: 945 30 10 27.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Andra euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

• Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu larunbat eta igandeetan. Tel.: 943 79 11 46.

• Umeak zainduko nituzke. Tel.: 943 71 53 74.

### 18. Eskakerak

• Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta hurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 07 28.

• Ile apaintzaile esperientziaduna behar dugu. Tel.: 943 79 80 23.

• Zerbitzari bat behar da. Tel.: 943 77 14 93.

• Pertsona bat behar du etxeko lanak egiteko. Autoa, beharrezkoa. Tel.: 943 77 04 67.

• Emakume bat behar du etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 23 02.

• Pertsona euskalduna behar da arratsaldeetan ume bat zaintzeko. Tel.: 943 77 01 31.

• Zerbitzari bat, ahal bada euskaraz dakiena, eta sukaldari bat behar dira Oñatiko taberna bateko. Tel.: 943 78 34 79.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Enpresa Zientzietan lizentziaduna den neska esperientziadunak 16 urtetik beherakoentzako eskolak ematen ditu. Tel.: 943 79 06 39.

• Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 943 79 83 46.

• Matematikan lizentziadun esperientziadunak eskola partikularrak emango lituzke udan. Tel.: 943 77 02 62.

### 21. Eskakerak

• Abuztuan ingelesezko eskolak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943



79 96 69. 22:00etatik aurrera.

- Unibertsitateko lehenengoko fisika, kimika eta biologiako eskolak jasoko nituzke. Presazkoa. Tel.: 629 26 39 45.

- Pertsona bat beharko nuke orde nagailuz lan bat pasatzeko. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00.

- Ingelesezt hitz egiteko pertsona bat behar dut lehenbailehen. Tel.: 943 79 44 64.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- M-SS matrikula duen Ford Escort XR3 Injection autoa salgai. 350.000 pta.tan. (negoziagarria). Egoera onean. Tel.: 943 77 13 91. Gauzez.

- Fiat Regatta 70 SS-AB salgai. 200.000 pta.tan. Negoziagarria. Tel.: 943 79 83 72. Gauzez.

- Derby Senda L-6 50 cc, mistoa salgai. Egoera onean. 160.000 pta. Tel.: 943 79 05 95. 10:00 - 13:00.

- 1991 urteko Clio 16v salgai, 90.000 km. estra, 825.000 pta. Tel.: 629 30 28 17.

- Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean. Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxekoa: 943 76 12 66. Xabi.

- Suzuki GSX-F/600 gorria salgai. 90. urtekoa da eta ongi zaindua dago. Tel.: 943 77 18 11. Ruben. 22:00etatik aurrera.

- Suzuki Lido 80cc SS-9754AK, 8.500 km. Egoera onean, ITV gauditurik. 95.000 pta. Tel.: 943 79 94 21. Fernando, goizez.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Area Pro 2 markako gitarra elektrikoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Estalkia oparitu egingo dut. Tel.: 943 79 73 30. Ekain. 21:00etan deitu.

- Lau lagunentzako Adria 3,75 m.ko karabana salgai. Abantze eta guzti. Egoera onean. Tel.: 943 74 07 85.

- Errekadista negozioa salgai, furgoneta eta ohiko bezeroak bame. Prezio ona. Tel.: 943 76 09 12.

- Bi sofa salgai. Bata hiru pertsonarentzat da eta bestea pertsona batentzat. Fundak dituzte. Prezio one-

an. Tel.: 943 79 77 91.

- Kanpin gurdia salgai 120.000 pta.gatik. Tel.: 943 77 077 74.

- Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuak deitu 943 79 19 63 telefonora.

- Bi ate dituen hozkailua salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 50 81. Elena.

- Super nintendo salgai, gutxi erabilia, bost jokoekin. Tel.: 943 79 50 81.

- Sango markako kanpin gurdia salgai. Hozkailu txiki elektronikoa oparitzen da erosiz gero. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 50 99.

- Kanpin gurdia saldu nahiko nuke, oso egoera onean eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

- Pedigreea duten "artzain aleman" txakurkumeak salgai. Tel.: 696 05 73 46 / 943 85 32 44.

### 27. Erosi

- Disko singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

- Bigarren eskuko mendiko bizikla-

ta merkea erosiko nuke. Egoera onean eta aluminiozkoa. Neurri altua. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00

### 30. Hartu

- Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu


- Joan den astean emakumezko erloju bat galdu nuen erdialdean. Korrea marroia eta esfera zuria du. Aurkitu baduzu, dei egin 943 79 03 29 telefonora.

- Betaurreko graduatu batzuk galdu nituen San Juan egunean. Tel.: 943 79 09 18.

- Harri txikiak dituen ezkuturreko bat galdu da, erdialdetik Uribarrira bitartean. Tel.: 943 79 99 82.

### 32. Aurkitu

- Betaurreko batzuk agertu dira Larragain kaleko garajejan. Tel.: 943 79 86 28.



**weru**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2

BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia

Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95


ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...





**J**ose Herrero eta Pilar Barbero orain 50 urte ezkondu ziren San Joan Bataiatzailearen parrokiari. On Jose Luis Iñarra parrokiak ezkondu zituen eta orduan, hainbestetan moduan, Laso izan zuten argazkilari. Bikoteak oroitzen du parrokiaren

egoera, oraingoarekin alderatuz gero, oso kaskarra zela.

Gogoan dute, era berean, nola On Jose Luis Iñarra parrokiak Santamaina aldera igotzen zen han zeuden etxabe batzuetara meza ematera (orain garaieak daude).

Pilar eta Jose, nahiz eta biak kanpotarrak izan, Arrasaten

ezagutu zuten elkar, Elman lanean. Orduan, lan ugari zegoen lantegietan eta emakume asko eta asko, umeak zaintzeari eta etxe garbiketarako egiteari laga eta lantegietan hasi ziren lanean.

Bitxikeria moduan, esango dugu Elman lanean hasi zen lehenengo emakumea Eufemia

García izan zela. Iaz hil zen.

Joseren eta Pilarren seme-alabek zorionak opa dizkiete gurasoei urrezko eztei hauetan!

-----  
*Argazkia eta  
berriemailea:  
Pilar Herrera*



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# ERREBELATUAN ESKAINTZA



**4 erroilo errebelatu eta 3 ordaindu  
Banaka ekar ditzakezu**

## GASTEIZ

Gorbea, 44 (Esquina Cruz Blanca)

Dendaraba

Plza. Barandiarán, 1

Ecocentro-Ptal. de Villarreal

Jacinto Benavente, 39 (Estudio)

Polvorín Viejo, 9

Denda  
berria

## BILBO

Alameda de Urquijo, 11  
(Coliseo Albiaren ondoan)

## DURANGO

Barrenkale, 26  
(Udalaren ondoan)

Denda  
berria

## BASAURI

Plz. Arizgoiti, 6

Denda  
berria

## EIBAR

Julián Etxeberria, 11

## ARRASATE

Iturrioz, 8

## MIRANDA DE EBRO

San Agustín, 20





# Udako eskaintza berezia

- ESCORT** ■ 1.695.000 pezetatik aurrera  
1.6 - 16 v.
- Fiesta** ■ 1.245.000 pezetatik aurrera
- Mondeo** ■ 2.085.000 pezetatik aurrera



- "Plan Prever" barne
- Matrikulazioa eta S.M.F. kudeaketa sartu gabe

STOCK-ean erabilgarri dauden ibilgailuen prezioak

**DEBA GARAIKO**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 45